

Postalak balioa dauka irudi legez eta komunikabide legez, bidalitako hitzek ez daukate presarik, ez da mezu hutsala... Beste zerbait da, gehiago da... kariñoa bidaltzea da, agur bat, kuku bat, akordatzen naiz zutaz, zuetaz... Eta adierazi nahi duzun mezua osatuko duen irudia bidaltzea, eta jasotzean irribarrea irudikatzea, eta hozkailuan itsatsita ikustea edo nonbait jarrita pasatzean ikusteko.

Normalean, bisitatzen ari garen hiriaren irudia, maletan pisurik ez daukan oroigarria. Zergatik ez eduki gure irudi bat, egiten dugunarena, pentsatzen dugunarena, Wikitokiko Wikiriki egoitzari esker batu garen artistona?

Idea batek erditu zuen proiektu hau: auzoaren ikuspegi propioa banatzea errealitate ezberdinetatik, errealitate hori "saltzeko"... Kanpotik hiri baten irudia saltzen duten bezala (kanpotik, estaltzen gaituena, eraikinak, hiri-paisaiak, leiho eta parkeak, baina ez bizitza...), uste dugu irudi horrek eduki politiko gehiago eduki zezakeela, kritika gehiago, edo errealitatez bustiago egon. Artista eta auzoan bizi garen emakume legez dugun eskarmentuz...

Oraingo honetan, gure postalentzat saltokia ziurtatuta izatea zen ideia: kale-saltzaileak. Baina egia da ez genuela proiektua idatzi salduko zituen jendearekin, eskaini baino ez genuen egin... Eta horrek leku deseroso batean kokatu gintuen.

Saltzeko ondo zetorkigulako soilik hartu genituen aintzat kale-saltzaileak? Eurentzat, baina eurak barik.

Zer egingo dugu postalek eman dezaketen diruarekin?

Oraindik lantzen gabiltzan zalantzak dira.

Proiektu hau hasi zen egoitza osoa zati txikitari banatzeko asmoz, eta guztiok, artistok eta kale-saltzaileak, onura lortzeko. Hala ere, agian, kale-saltzaileentzat baina kale-saltzaileak gabe egin genuen, beraz, proiektutik desagertu ziren eta irudiak ekoizten soilik geratu ginen.

Bakoitzak bizi duen errealitateaz diharduten irudiak...

Dorletak eta biok askatasuna baino ez diegu eskaini, beti desio izan duguna... eta aho biko ezpata dena, ez dakizulako zer jasoko duzun... denbora tarteak erlatiboak dira, eta hasieratik ahaztu nahi izan dugu daten presioa.

Baina proiektuaren garapenean, artisten irudiak agertu ahala... erakusten, denak zuen gero eta zentzu handiagoa. Denak.

Irudiek burutik pasatu ez zitzaizkigun errealitatez hitz egiten digutelako.

Lana, amatasuna, osaketa, migrazioa, queer ariman sartutako alegiazko pertsonaiak, pertsonaia historikoak, antifaxismoa, sareak, performanceak, bakardadea eta sentsualitatea.

Esan gabe doa aukeratutako artista bakoitzak nahi izan duena islatu duela, premisa izanda: "postal bat zuk bizi duzunarekin, zure bizi-prozesuaz islatunahiko zenukeena, zure bizitzaz auzoan, zure eskarmentua... auzoaren zein irudi salduko zenuke?"

Jakina, zalantzarik ez genuen, lanen emaitzak zoragarriak dira.

Premisa batetik abiatu ginen: parte-hartzaileak aukeratzeko kasualitatea eta unearen errealitatea. Ez geneukan aurrez zehaztutako zerrendarik. Egunerokoan sortutako loturak, gutxinaka, proiektua eskaini agertzen zihoazenei eta beti gurutzatzen ditugunei. Artearen komertzial gisa, unea aprobetxatuta.

Gure bilakaera artistikoan aurretiaz zehaztu gabeko harremanak interesatzen zaizkigu. Espazioa eta jardueraren bat proposatzen ditugu prestatu ez ditugun loturak jario daitezten. Arropa edo adaxken trukeak espazio hori sortzea ahalbidetzen digu. Kasualitateak, errealitateak, uneak, loturek, horiekin jolasten gara... Aldaketekin eta dena gure kontrolpean ez dagoela onartzearekin, oztopoak agertuko dira eta malgu onartu behar dira eta emaitza ezin da lotuta egon.

Guk, gure aukeren baitan, banaketa bat egin dugu. Aukeratu, eskaini eta itxaron...

Egitean, pentsatzea baino lehenago doana eta modu egokiagoan... gauza bat egitea pentsatu dugu eta beste bat egin... Bide horretan, estresatu egin gara, pentsatuz ez ginelako egiten ari gutaz espero zena.

Gero, uneren batean topo egin dugu.

Ez dugu beti ondo aukeratzen egin behar duguna, ez dugu beti egiten egin behar duguna... Edo egin behar duguna ez da beti kanpora irteten eta ez du forma zehatzik hartzen.

Ez dugu proiektua amaitutzat ematen, Wikiriki egoitzak aholkularitza eta enpatia espazio bat eskaini digu, eta orain dispositiboren bat diseinatu behar dugu lanari aterpe emango diona ikusi eta balioetsi dadin.